

EUSKADIKO UDALAK UDAL GOBERNUETAN ETIKA

PUBLIKOA HANDITZEAREN ALDE

AGERTU DIRA EUROPAN

EUDELe Euskadiko udalen hautetsientzako Jokabide Kodea aurkeztuko du gaur deszentralizazioari buruz Estrasburgoko Europako Kontseiluan egingo den hitzaldian.

Estrasburgon, 2013ko azaroaren 26an. Gaur goizean, **“1953-1988-2013: Deszentralizazioa bidegurutzean” lelopeko** hitzaldian, Euskadiko Udalen Elkarteak sortutako Jokabide Kodea azaldu die Estrasburgoko Europako Kontseiluaren egoitzan bildutako udal gobernuei.

EUDELeko Lehendakariak, Ibone Bengoetxeak 10:30etan **"Krisia eta berriro zentralizatzeko tentazioa"** inaugurazioko panelean parte hartu. Euskadiko Udalekin batera, beste herrialde batzuetako hizlariak ere parte hartuko dute, esaterako, Frantzia, Suitza, Alemania, Herbehereak, Suedia, Italia, Polonia eta Georgia.

Ibone Bengoetxeak, bere hitzaldian, gaur egungo hiru krisiak aipatu ditu (ekonomikoa, politikoa eta ideologikoa); izan ere, horien ondorioz, herritarrek politikariengan zuten konfiantza ahulduta aterata da. Gainera, udalen bidez gauzatutako gertuko demokraziarako ondorio larriak ekarri ditu krisi hirukoitzak.

EUDELeko Lehendakaria konfiantza galera horretaz baliatu da Euskadiko udaletako alkate eta zinegotzientzako Jokabide Kodea zergatik eta nola sortu zen azaltzeko: "Aurrea hartu nahi diogu. Udal hautetsiak izanik, eredugarriak izan behar gara. Horregatik hartu dugu herritarrekiko honako konpromisoa, kontuak ematea onuragarria eta beharrezkoa delako."

lido berean, Lehendakariak etika publikoa udal demokrazia handiagoa lortzeko bide gisa proposatu du: "Etikak soluzioak eskaini ahal dizkigu, udal demokrazia handiagoranzko zubiarena egin dezake eta, horren ondorioz, legitimitate, autonomia eta deszentralizazio handiagoa ekarri."

Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak (CMRE) antolatu du gaurko Hitzaldia, Europako Kontseiluko Udal eta Eskualdeetako Agintaritzen Biltzarrarekin batera. Estrasburgoko egoitzan, azaroaren 27tik 29ra burutuko den **Demokraziaren 2013ko Munduko Foroaren** ataria izango da.

Euskadiko Udalen Jokabide Kodea

"Euskadiko udalen politikaren kalitate instituzionalerako Konpromiso, Jokabide eta Gobernu Onerako Kodea" EUDELen Batzar Nagusian aurkeztu zen, aurtengo maiatzean. Batzorde Eragileko 15 Alkateek hasierako fase esperimentalean (talde pilotua) ezartzeko konpromisoa hartu zuten eta hilabete hauetan udal erakundeetan zabaltzeko dute batzorde, gobernu-batza edo osoko bilkuren bitartez.

Dokumentua erabiltzen eta aplikatzen duten udalek doiketak eta ekarpenak egin ahal izango dituzte. Kodearen bidez, etika publikoa etengabe hobetzeko prozesua sustatu nahi da, gero eta exigentzia handiagoa edukita eta Euskadiko udal politikaren gauzapena hoberenduta.

Ebaluazioaren gida

Euskal hautetsien Jokabide Kodea beste kode etiko batzuekin alderatuta bereizten duena ebaluaziorako adierazle-gidarekin batera aurkeztea da. Horren bidez, **euskal politikaren jarduera-eremu desberdinetan etika nola betetzen den neurtu daiteke.**

Ebaluazioaren bitartez, hobetzeko planak gidatzeko udal bakoitzaren indargune eta ahulezien diagnostikoa osatuko da. Halaber, batez besteko orokorra egingo da eta udal guztietara bidaliko da arlo bakoitza hobetzeko erreferentzia eta orientabide gisa.

Une honetan, Europako Kontseiluaren aditu-talde batek EUDELekin batera lan egiten du aholkularitza tekniko eta metodologia emanda, talde pilotuko 15 udalen Kodearen ebaluazioaren testa egiteko. lido horretan, Udalen Elkarteak Europa mailako mintegia antolatuko du abenduan ebaluazioaren emaitzen balantzea egiteko asmoz.

Talde pilotua

Bizkaia: Basauri, Bilbo, Durango, Ermua, Galdakao, Portugalete, Santurtzi.

Araba: Amurrio, Arraia-Maeztu, Guardia, Iruña Oka, Vitoria-Gasteiz.

Gipuzkoa: Elgoibar, Hondarribia, Irun.